

ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

Herritarren eskubideak

- Begirunez artatu, informatu eta orientazioa hartzeko eskubidea.
- Eguneratutako eta egiazko informazio publikoa eta zehatza jasoteko eta orientaziorako eskubidea: interesdunari jagokozan espedienteen tramitazioa zertan dan jakin eta horreen dokumentuen kopiak lortzeko eskubidea, beti be eskaria interesdunak edo berak baimendutako ordezkariak egiten badau.
- Autonomia erkidegoko hizkuntza ofiziala erabilteko eskubidea.
- Udalagaz zein herriagaz erlazioatutako jarduera, izapide, helbide eta zerbitzuen inguruko informazioa aurrez aurre, telefonoz zein modu telematikoan jasotzeko eskubidea.
- Administrazioaren erantzuna jasotzea.
- Legez holan jagokonean, udalari eta bere zerbitzupuan dagozan ordezkari, zein langileei erantzukizunak eskatzeko eskubidea.
- Beharrezkoak ez diran edo udalaren esku dagozan dokumentuak ez aurkezteko eskubidea.
- Aurkeztutako dokumentuen kopia zigilua jarrita eukiteko eskubidea.
- Tramiteen erantzuleen identitatea eta espedientea erabagiko dan epea jakiteko eskubidea.
- Bereizkeria bako zerbitzu pertsonalizatua eta eraginkorra jasoteko eskubidea.
- Norbere datu pertsonalak udalari emoten jakozanean, datuon babesa bermatuta eukiteko eskubidea.
- Jakinarazpenak aurkezteko lekua eta modua aukeratzea.
- Norbere datuen tratamentua eta helburua zein izango diran jakiteko eskubidea eta zein dan fitxategi horren arduraduna jakitekoa.
- Norbere datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta kontra egiteko eskubidea.
- Udal instalazioak egokiak eta irisgarriak izateko eskubidea.
- Legeek jasotzeko gainerako eskubideak.

Herritarrengandik itxaroten doguna

- Joan-etorriak gitxitzeko edo etorri beharrik ez dagoanean, egin nahi dan tramiteari buruzko informazioa eskuratzeko. Horretarako, tramite bat egiten etorri aurretik 010era deitu edo bermeo.eus web gunean beharrezko guztia informazioa jaso daiteke.



- Tramitea ekintza bakar batean egin ahal izateko, beharrezko dokumentazioa aurkeztea. Horretarako, tramitea egiten etorri aurretik 010era deitu edo bermeo.eus web gunean beharrezko guztiaren informazioa jaso daiteke.
- Udalari adierazotako datuetan aldaketarik balego, udalari jakinarazotea, datuok eguneratuta mantentzeko.
- Berhazen, bakotxak bere txandea errespetatzea eta izen-abizenak, nortasun agiria eta helbidea adierazotea, edozein tramite egiten hasi ahal izateko.
- Araututa dagozan epeen barruan eskariak aurkeztu edo ordainketak egitea.
- Arreta bulegora etorri beharrik ez eukiteko, tramitea egiten etorri aurretik, web gunearen bitartez online egiteko aukerea dagoan ikustea.
- Udaleko datuetan edo eskaintzen dan informazioan akatsik ikustekotan, horren barri emotea.
- Kexen eta iradokizunen bidez edo herritarrek daukiezan beste bideak erabilia, zerbitzuak hobetzeko prozesuetan parte hartzea.
- Zuzentasunezko eta errespetuzko jarrera mantentzea eta balibideen erabilera egokia (bulego, espazio, makinak zein ekipamendua)

